

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Irurita-Elizondo (Baztan) saihesbidea zerbitzuan jarri da gaur goizean

Nafarroako Gobernuak 13,7 milioi euro inbertitu ditu saihesbidea eraikitzen

Viernes, 15 de junio de 2012

Irurita-Elizondo saihesbidea zerbitzuan jarri da gaur goizean, Baztanetik (N-121-B) Iruñea Frantziarekin lotzen duen errepidean, Nafarroako Gobernuak saihesbidea eraikitzeko 13.730.687 euro inbertitu ondoren.

Saihesbide horretan bertan gaur goizean egin den bidea zabaltzeko ekitaldian, Elizondoko glorietan, Sustapen eta Etxebizitza Departamentuko Eraikuntza Zerbitzuko zuzendari Estela Moso-k parte hartu du.

Nafarroako Gobernuaren kalkuluen arabera, Irurita-Elizondo saihesbidean 3.300 ibilgailuk zirkulatuko dute egunero eta orain arte bi udalerrri horietako hirigunetik pasatzen zirenak. Saihesbidea eraikitzea Nafarroako errepide-sarean egindako jarduera-talde baten zati da, ibilbide gatazkatsuak kentzeko bideratuta dago, eta jasaten duen komunikabideen garrantziagatik, herritarrei eragozpen eta segurtasun-eza handiak eragiten die.

Irurita-Elizondo saihesbidea Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamendurako Planean ([POT 2](#)) jasotako jarraibideetan ere sartzen da, eta Baztango ibarreko azpiegiturak baliatu nahi ditu herritarrak finkatzeko. Ildo horretan, aipatu behar da bide berri horrek ibar hori Nafarroako gainerako lekuekin egituratzen lagunduko duela eta alboko herrietako erdiguneetarako eta inguruko industrietarako sarrerak hobetuko dituela.



Irurita-Elizondo saihesbideko zati baten irudia.

Saihesbidearen ezaugarriak

Irurita-Elizondo saihesbidea 5,8 kilometro luze da. Arraiotzeko saihesbidea amaitzen den tokian hasten da eta, mendebaldetik ekialdera, Irurita eta Elizondoren ezkeraldetik doa Elbete inguruan amaitzeko. Bide berri hori N-121-B errepideko lehengo bidearen alternatiba da eta NA-4405 (Oharriz-ko auzoa), NA-4445 (Arrazkazan auzoa) eta NA-4403 (Lekaroz) errepideak zeharkatzen ditu.

11 metro zabal den galtzada batez osatuta dago eta 3,5 metroko bi errai, 1,5 metroko bazterbidea eta 0,5 metroko bernak ditu. Bidea 80 Km/h-ko abiadura ibiltzeko proiektatu da.

Gainera, eraiki dira: hiru zubi Baztan ibaiaren gainean (93 metro), Tellebiko ubidea (89 metro) eta Artesianako ubidea (88 metro) eta baita behealdeko bost pasabide ere saihesbideko ibilbidean zehar (ganaduarentzat, faunarako eta NA-4405, NA-4445 errepideei eta hiriko bide bati jarraipena emateko).

Saihesbidearen enborrean ere bost glorieta eraiki dira: Arraiotzen, Lekarozen, Elizondon, Elbeten eta N-121-B errepidearen jatorrizko bidearekin lotzen duen tokian. Elizondoko glorietatik 420 metroko adar bat eraiki da Baztanberriko auzoko glorieta batean amaitzen dena.

Gainera, beharrezkoa izan da kaltetuak izan diren zenbait zerbitzu eta zor berriz jartzea. Haietako batzuk 11 linea elektriko dira, telefono- eta gas-zerbitzuko zenbait kanalizazio, hornidura-sareko 10 atxikipen eta saneamendu-sareko beste 3.

Bariantearen ezaugarriak

Irurita-Elizondo barianteak 5,8 kilometro luze da. Arraiotzeko bariantea amaitzen den tokian hasten da eta, mendebaldetik ekialdera, Irurita eta Elizondoren ezkeraldetik doa Elbete inguruan amaitzeko. Bide berri hori N-121-B errepideko lehengo bidearen alternatiba da eta NA-4405 (Oharriz-ko auzoa), NA-4445 (Arrazkazan auzoa) eta NA-4403 (Lekaroz) errepideak zeharkatzen ditu.

11 metro zabal den galtzada batez osatuta dago eta 3,5 metroko bi errai, 1,5 metroko bazterbidea eta 0,5 metroko bernak ditu. Bidea 80 Km/h-ko abiadura ibiltzeko proiektatu da.

Gainera, eraiki dira: hiru zubi Baztan ibaiaren gainean (93 metro), Tellebiko ubidea (89 metro) eta Artesianako ubidea (88 metro) eta baita behealdeko bost pasabide ere barianteko ibilbidean zehar (ganaduarentzat, faunarako eta NA-4405, NA-4445 errepideei eta hiriko bide bati jarraipena emateko).

Barianteko enborrean ere bost glorieta eraiki dira: Arraiotzen, Lekarozen, Elizondon, Elbeten eta N-121-B errepidearen jatorrizko bidearekin lotzen duen tokian. Elizondoko glorietatik 420 metroko adar bat eraiki da Baztanberriko auzoko glorieta batean amaitzen dena.

Gainera, beharrezkoa izan da kaltetuak izan diren zenbait zerbitzu eta zor berriz jartzea. Haietako batzuk 11 linea elektriko dira, telefono- eta gas-zerbitzuko zenbait kanalizazio, hornidura-sareko 10 atxikipen eta saneamendu-sareko beste 3.

Bide berri hau, HNV eta Obenasa enpresek osatutako Irurita-Elizondo saihesbidea ABEEari esleitu zitzaion, eta 2010eko otsailaren 8an jarri zen abian. Bestalde, proiektua Peyco enpresak idatzi zuen. Obra-zuzendaritzak hilean behin bisita bat egin du ibarreko ordezkariekin eta ekonomiko gehiegi garestitu gabe egin daitezkeen eskaerei erantzun egin zaie.



Saihesbide berriko Elizondoko glorieta.

Bigarren fasea

Irurita-Elizondo saihesbideko zerbitzua abian jarri ondoren, jarduera horren bigarren fasea egitea geratzen da, eta haren azpiegitura garrantzitsuena bide hori Elizondoko bidearekin lotzea izango da.

Saihesbideko jatorrizko proiektuak lotura hori barnean hartzen zuen baina, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak jendaurreko fasean Elizondoko sarreran proiektatutako zubiari aurkeztu zizkion alegazioen aurrean, proiektua bitan zatitzea erabaki zen bidea eraikitzen has zedin, atzerapenik izan gabe.

Etorkizuneko zubiak zer ezaugarri eta kokapen erabakiko dituen ibaiaren eredu hidraulikoa aztertzen ari dira gaur egun. Bigarren fasean ere, Lekarozko kirolgunera doan oinezkoentzako pasabide bat sartuko da udalerrri horrek eskatu duen moduan.

Galería de fotos



Baztan ibaiaren gaineko zubia.